


GAZTEON OSASUNAGATIK,
PREKARIETATEA REKIN
AM  **ITU**



Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna baliatuz, apirilak 28, gazteok pairatzen dugun prekarietatea eta honek gure ongizatean dituen ondorio latzak salatu nahi izan ditugu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) Emantzipa...Zer? enplegu eta gazteria lantaldean batutako hainbat gazte elkarte, kolektibo eta sindikatuok. Lanistripuetatik zein gaixotasunetatik haratago doan egoera bat da eta azkenengo urteetan eman diren murrizketa soziolaboralak direla-eta areagotu besterik ez da egin.



Lanpostuetan edo enpleguaren erruagatik sortutako osasun galera hauek islatzeko hainbat datu ezagutarazi nahi izan dira, besteak beste, **16 eta 34 urte bitartekogazteek 2020an zehar izandako lan istripuak Euskadin: 6.548, 35 larri eta heriotza sortu duten 6. Eta 16-30 urte artekoen artean, 3.080 gizon eta 1.172 emakume izan zuten lan istripuak.** 2022ko datuak eskuragarri ez daudenez ezin dugu aurreko urteko istripu-tasa kuantifikatu. Hala ere, 2022an EGK-k behin aktibatu behar izan zuen Lan Istripuen Protokoloa, gazte langile baten heriotzagatik. Bestetik, ezin ditugu ahaztu ezta oharkabean utzi gaixotasun profesional bat jasaten duten gazteak, haien bizitza pixkana-pixkanaka txikituta ikusten dutelako. Errealitate hau oso larria dela uste dugu, izan ere, haien ibilbide profesionala hasi besterik ez da egin. Eustaten arabera 2021an 93 pertsona gaztek gaixotasun profesional bat izan zuten, horietatik: 57 gizon eta 36 emakume. Hala ere, kontuan izan behar dugu gaixotasun profesionalen azpierreistro bat existitzen dela. Izan ere, mutuek kontingentzia arrunten moduan tratatu eta Osakidetza bideratzen dituzte. Beraz, datu ofizialak baino gehiago izango lirateke.

Gainera, datu hauetatik kanpo geratzen dira gazte asko, kontraturik gabe, langabezia, enplegu bilaketan edo aitorturik gabeko lanetan daudelarik pairatzen dituztelako istripuak edo egoera hauekin loturiko gaixotasunak. Emakumeen kasuan egoera hau are larriagoa da.

Izan ere, eta azken urte hauetan baieztatu dugun bezala, istripu eta lanpostuetan sortutako gaixotasunez harago doa prekarietatea eta lan osasunaren arteko lotura: gazteontzat enplegua sustatzeko aitzakiarekin eta langabezia eta gizarte bazterketaren mehatxupear, erizaindegira zuzenean bidaltzen gaituzten lan baldintzak onartzera behartzen gaituzte.

_ Prekarietaterako formazioa: hezkuntza sistemaren azken erreformen eskutik, bai derrigorrezko hezkuntzan bai goi mailakoan ere, hezkuntza beraren pribatizazio eta intentsifikazioaren bideak leundu dira, lanean hasi baino lehen prekarietatera ohitzen joan gaituzten. Haatik, lan istripuen errealitatea ikastetxeetara gerturatzen dituzten proiektuak ez dira ikasle guztiengana heltzen gehienetan.

_ Osasuna eta lan osasunaren pribatizazioa: Mutuek berezkoak dituzten lan istripu eta gaixotasunen eskuduntzaz gain, azken erreformarekin batera langileen gaixotasun arrunten kudeaketaren eskuduntza jaso dute, eta honek, osasun publikoaren deskapitalizazio bat suposatu dezake. Izan ere, epe ertain batean osasun zerbitzuen eskala bikoitz batera heldu gaitzkeelako, non lanik gabe dauden pertsonak bigarren mailako asistentzia bat izango duten deskapitalizazio honen bitartez osasun publikoa errekurtsorik gabe geratzekotan. Eta honek, gazteon langabezia tasa altuak eta gazteontzat erabiltzen diren kontratazio formula bereziak aintzat hartuta, gazteriarengan eragin zuzena izango du; lana topatzen dutenean mutuek haiekiko eragingo duten presioaz gain.

_ Lan ezegonkortasuna: langabezian egoteko aukera gehiago izateaz gain¹, lanean jarraikortasun eta etorkizun imajinaezina izateaz gain, eskumen eta erantzukizunak nahi bezala aldatzeaz gain edo egin beharreko lanak eskatzen duena baino hezkuntza maila altuagoa eskatzeaz gain, ezegonkortasun honek gure etorkizunerako planak egitean eta gure bizi proiektuan erabakitzeke eragin zuzena du. Ziurgabetasun honek antsietatea sortzen du, eta horren ondorio diren hainbat gaixotasun.

_ Malgutasuna eta behartutako mugikortasuna: gazte garenok familia-ardurarik ez daukagula argudiatuta (benetakoa ez den aitzakia), ordutegi malgutasuna eta mugikortasun geografiko handiagoa ezartzen dizkigute. Eta honek eragin latzak ditu, azken finean, gure garapen pertsonala eta bizi proiektuak mugatzen dituen enplegu bati lotuta bizitzera behartzen gaituelako.

_ Ez-ohiko kontratazio-formula eta ekonomia ezkutura bideratu: lan merkatuan sartzeko aitzakiarekin beka, praktika ez-laboralak, praktika eta formazio kontratuak, ordutegi gabeko *free lance*-ak... eta beste ez-ohiko hainbat kontratazio formula ezartzen dizkigute, dagoeneko hauek eskubide sozioekonomikoak edo enplegu duin bat lortzeko bidea ere ez





direnak. Aitzitik, formula hauekin gure ezegonkortasuna areagotzen da eta istripu zein lan gaixotasunak askotan ez dira zenbatzen.

_ Eginbehar gehiago eskubide gutxien dauzkagunontzat: askotan gazteen langabeziari irtenbide emateko Ekintzailtza eta Autoenplegua indar gehiegiz sustatzen dira. Hala ere, formula hauek gazteoi, inolako eskubideren truke, aurre-inbertsio handiak eskatzen dizkigute eta, gorabehera ekonomikoen aurrean egoera zaugarri batean uzten gaituzte. Bitartean, administrazioek 'ekintzailtza espiritua sustatzean' oinarritzen dituzte haien politika publikoak, gazteon langabezia eta prekarietatea soilik geure esku egongo balira bezala.

_ Gero eta eskubide urratuagoak: azken lan erreformak bereziki latzak izan dira lan osasunari dagokionean, bai *baja* kasuan langileak kaleratzeko ematen dituen erraztasunengatik, bai eta gaixotasun arruntetan mutuei emandako eskumenengatik, lanera gaixo eta sasoi txarrean joatera bultzatuko gaituena, gure osasuna kaltetuz eta istripu arriskuak areagotuz.

_ Haurdun dauden emakumeak: Emakume gazte langileen kontrako eraso berri bat eman da. Izan ere, Ginekologiako eta Obstretiziako Espainiako Elkarteak (SEGO), mutuekin eta Gizarte Segurantzarekin batera haurdunaldian zeharreko arriskuagatik *baja* hartzeko gida berri bat sortu dute eta bertan, *baja* hartzeko asteak atzeratu eta irizpideak gogortu dituzte.

Jakina denez, gazteok lan baldintza kaxkarrenetarikoak pairatzen ditugu, lan baldintza gogor eta txarren onartzea dela eta, behin-behinekotasuna, lan erritmo gogorrek direla eta, eta pairatzen dugun prekarietatearen ondorioz, pertsona gazte batek lan-istripu bat izateko dituen aukerak helduek dituztenak bikoizten dituzte², eta enpleguak, gizartearen parte izan eta gure buruaz jabetzeko bide bat izan ezean, gero eta modu larriagoan isolamendua eta

2. Osalan 2008



esplotazioa bultzatzen ditu. Gaur egun, lanak edo bere gabeziak gaixotasuna eta heriotza sortzen dute gazteengan, bai gaixotasun biologikoengatik (bihotzekoak, giharretakoak, sabelekoak...), bai gaixotasun psiko-sozialengatik (antsietatea, estresa, menpekotasunak, depresioa...). Eta hau guztia larriagoa izango da azken lan erreformen eta Mutua Legearen ondorioz etorri den prekarietate latzarekin, zeinek ezegonkortasuna, segurtasun falta, babes eza, kaleratua izateko beldurra, malgutasuna eta ahultasuna areagotuko dituen.

Honengatik guztiagatik, gure lan baldintzak eta lan osasuna hobetze aldera, eta baita gazteen duintasun sozio-ekonomikoaren oinarriak ezartzeko bidean ere, honakoa aldarrikatu nahi dugu:

- Osasuna eskubide bat izatea, eta ekonomia irizpideen menpe ez egotea.
- Eskubide osoko pertsonak gisa aintzat har gaitzatela, gure eskubideak dugun lan egoerarekin loturarik izan gabe. Prekarietatea eta lan karga handiak onartzera garamatzen beldurraren politikarekin bukatu beharda, azken lan erreformak atzera botaz.
- Lan osasuna eta lan arriskuen prebentzioa lortu beharreko helburu bat izan dadila, ez bete beharreko paper bat, beharrezkoak direnikuskaritzak eginez eta erantzukizunak eskatuz. Lan osasun eta segurtasunaren arduradun diren Lan Agintaritzak, Lan Ikuskaritzak eta Osalanek bete behar dute eginbehar hau. Gainera, kontratazio formula berezien, eta beken zein praktika ez laboralen kontrola eta ikuskaritza areagotu beharko litzateke. Izan ere, egoera horietan gure lan eskubideak gehiago urratuak izaten dira.
- Erakunde arduradunen partetik esku hartzea gaixotasun profesionalen prebentzioan, kontrolan eta detekzioan.
- Aberastasuna eta lana banatu daitezela, pertsonak kapitala lortzeko erreminta gisa erabiltzen gaituen eredutik aldenduz.
- Zaintza lanak aintzat hartu daitezela eta lan produktiboarekin





berdindu daitezela.

- Zergak gizarte inbertsioan erabili daitezela (gaizki deituriko gizartegastua), pertsonen ongizatea gure lehentasunen bihotz bihotzean jarritz.
- Gazteon eta gizartearen parte hartzea eta antolaketa bermatu dadila.
- Lan osasuna genero ikuspegi batetik: Emakumeen laneko osasun arazoak gutxi aztertuak izan dira, beraz, lan osasunean genero ikuspegia txertatzea beharrezkoa ikusten dugu. Horrelako ikerketaksustatu beharko lirateke eta gainera, ezin dugu ahaztu emakume gazteak egoera prekarioago batean bizi garela, oraindik larriagoa izanik. Gainera, ezinbestekoa da langileek genero ikuspuntu batetik formakuntza jasotzea arlo honetan eta lan arriskuen ebaluazioa genero ikuspegi batetik egitea aipatutako elementuak eta emakume gazteek pairatzen duten presentzia bikoitza kontuan izanik. Bestetik, kontuan

GURE OSASUNA ETA GURE ESKUBIDEEN ALDE MOBILIZATU GAITEZEN!

PREKARIETATEA ETA OSASUNA KONTRAESANAK DIRA



/EZEGONKORTASUN ETA PRESIOAREN IGOERA / LAN BALDINTZENTXARTOTZEA /
KALERATZE MEHATSUA / LANGABEZIAREN IGOERA /
/ ENPLEGUGARRITASUN ZAILTASUNAK ETA BAZTERKETA SOZIALAREN ARRISKUA / ALDI
BATERAKO ETA JARDUNALDI MURRIZTUTAKO ENPLEGUAK / ARAZO EKONOMIKOAK /
/ ZAURGARRITASUNA /



/ **DEPRESIOA** ANTSIETATEA / BIHOTZECO GAIJOTASUNAK / BIHOTZECOAK /
/ **ESTRESA** / **LAN ISTRIPU ETA GAIJOTASUN**
/ NORK BERE BURUAZ BESTE EGITEA / **PROFESIONAL GEHIAGO** / GIHAR ETA
EZURRETAKO GAIJOTASUNAK / OHITURA EZ OSASUNTSUAK ... /